



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

2025 _ 2026

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA

GRADUA (DUAL aipamena)

www.mondragon.edu/iko



Salto egin Ikus-entzunezko KomunikAkziora!

Pantailen beste aldean zer dagoen ikusi nahi? Sare sozialetarako edukia sortzen eta antolatzen sakondu nahiko zenuke? Telesail bat sortzea gustatuko litzaizuke? Jakin nahi duzu zer behar duen publizitate kanpaina on batek? Probatu nahiko zenituzke plato batean egin beharreko lan ezberdinak?

Ikus-entzunezko Komunikazioa graduan modu praktiko eta sortzailean murgilduko zara egungo komunikazio digitalean eta ikus-entzunezko arloetan.





MODU LUETAN LAN EGINDA IKASI KODUZU

Ikasgai solteen eredu a gaindituta, **modulu etan lan eginda** eskuratuko dituzu komunikatzaile baten konpetentzia profesionalak. Modulu bakoitzak hainbat aste irauten ditu eta denbora-tarte horretan, erronka jakin bati aurre egiten jardungo zara.

Jakina, oso **modu praktikoan** egingo duzu lan: talde-lanean, aurkezpen askoren bidez, proiektu errealak gauzatura, komunikazioa, enpresa eta erakunde zein elkarteetan praktikak eta benetako proiektuak eginez...

BI IBILBIDE AUKERAN

Bi ziklotan dago antolatuta Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua. Lehenengo bi urteak baliatuko dituzu komunikazio mundura hurbiltzeko eta mundu zabal honetako hainbat esparru gertuagotik ezagutzeko: Internet, irratia, telebista, zinema, komunikazio idatzia... eta hainbat diziplina lantzeko: argazkigintza, podcast-ak, grafismoa eta bideogintza, besteak beste. Bigarren zikloan ibilbidea aukeratzen da. Graduak bi ibilbide eskaintzen ditu eta horietako bat hautatu beharko duzu:



Ikus-entzunezko sormena ibilbidea

Ibilbide honetan, era guztietako ikus-entzunezkoak egingo dituzu. Aukera izango duzu ikus-entzunezko baten sorkuntzan dauden rol eta lanpostuak ezagutzeko eta horietan aritzeko, esaterako: gidoigintza, produkzioa, errealizazioa, zuzendaritza, argiztapena, soinua, grafismoa, edizioa...



Komunikazio digitala ibilbidea (DUAL aipamena)

Aukera honetan jorratuko dituzu, bereziki, esparru digitaleko lanbideak. Bigarren ibilbide hau lotuta dago erakundeen komunikazio korporatiboarekin, betiere, ikus-entzunezkoek esparru horietan duten garrantzia kontuan hartuta. Gainera, landuko dituzu horiekin lotutako ezagutzak, hala nola marketin digitala, komunikazio-planen diseinua, produktuen zabalkunde-prozesuak eta ekitaldien antolaketa.

Bigarren ibilbide hau hartuta, izango duzu DUAL eredu an jarduteko aukera.

ZER DA EREDU DUALA?

DUALaren helburu nagusia da lanaren bidez ikastea. Ikus-entzunezko Komunikazioa graduan, Komunikazio Digitala ibilbidean bizi ahal izango duzu DUAL esperientzia, 3. eta 4. mailetan. Hauek dira gure eredu DUALaren bereizgarriak:

- Konpetentzia batzuk landuko dituzu enpresan lan eginez, beste batzuk, aldiz, unibertsitatean bertan.
- Aukera izango duzu barrutik ezagutzeko komunikazio departamentu bat edo komunikazio agentzia bat.
- Ordainsaria jasoko duzu.
- Urte eta erdiz, esparru profesionalean murgilduko zara.
- Praktiak eta Gradu Bukaerako Lana enpresa edo erakunde horretan egingo duzu.



Unibertsitateko prestakuntza DUALerako EU4Dual aliantzako liderrak gara. Proiektuan parte hartzen dute Europako beste zazpi unibertsitatek.



IDEIENEA

EKINTZAILETZA ETA SORMENERAKO TOPAGUNEA

Komunikazio arloan aitzindari eta erreferente izaten jarraitzeko, proiektu berri bat jarri dugu abian Aretxabaletan: IdeiEnea. Bi helburu nagusi ditu proiektuak; batetik, komunikazioaren euskal ekosisteman esperimentazioa eta berrikuntza sustatzea, besteak beste, horretarako ekintzaileentzako bidelaguntza eskainiz; bestetik, erakundeei komunikazioaren alorrean puntako talentua, ezagutza eta aholkularitza eskaintzea.

Campusa handitu esperimentazioa eta berrikuntza proiektu ekintzaileei leku egiteko, eta ondorioz, egungo punta puntako teknologia eta baliabidez gain, areto berri bat eta coworking espazio bat ere izango ditu campusak.

LORTUKO DUZUN PROFIL PERTSONALA

Komunikazio lanbidean beharko dituzun konpetentzia profesionalak jorratzeaz gain, graduan landuko duzu zure profil pertsonala. Lanketa horren helburua da zu prestatzea izateko komunikatzaile konprometitua, kooperatiboa, euskalduna, kritikoa, sortzailea, ekintzailea, malgua, gizarte eraldatzailea eta bizitza osoan ikasten jarraitzeko gaitasuna erakutsiko duena.



TUTOREA BIDAIDE IZANGO DUZU

Zu zeu izango zara zeure ikasketa-prozesuaren protagonista. Ikus-entzunezko Komunikazioa graduan, kontuan hartzen dugu pertsona bakoitzak bere bide propioa egin behar duela. Horretarako, tutore bat izango duzu, zure garapen pertsonal eta profesionalean aurrera egiten lagunduko dizuna.



ADITU ETA PROFESIONALAK

Unibertsitateko irakasleekin batera, graduan parte hartuko dute kanpoko eta bertako aditu, eragile eta erakundeetako ordezkariak. Horrela, egun lanean ari diren sektoreko profesional espezializatuen eskutik jasoko dituzu eskolak eta tailerrak: telebistako aurkezleak, zine zuzendariak, diseinatzaile grafikoak, web garatzaileak, *community managerrak*, komunikazio zuzendariak...



CAMPUS BERRITUA, PUNTA-PUNTAKO BALIABIDE ETA TEKNOLOGIEKIN

Komunikazio campusa Aretxabaletan kokatuta dago, propio Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua eskaintzeko, goitik behera berriztu dugun eraikin historiko baten bueltan. Baliabideen artean daude: platoa, zortzi edizio gela, irrati estudioa, errealizazio gela, ordenagailu gelak, eta aretoa. Tresneriari dagokionez, punta-puntako materiala jarriko dugu zure eskura: bideo eta argazki kamerak, mikrofonoak, fokoak, grabagailuak, tablet-ak...

Ikus-entzunezkoen edizioetarako beharko dituzun programa informatiko gaurkotuak ere erabilgarri izango dituzu. Helburua da azken belaunaldiko tresneria erabilita ikastea, lan mundurako prestatu zaitezen.



MUGIKORTASUNA ETA ATZERRIKO EGONALDIAK

Graduaren mugikortasun programaren helburua da ikasle guztiek mugikortasun esperientziaren bat izatea. Erasmus+ programaren bidez, aukera izango duzu Europako herrialde askotan egonaldiak egiteko. Horretaz gain, Latinoamerikara joateko bidea ere izan dezakezu.

IKASTURTEZ IKASTURTE

1. maila



PODCASTA

Irratiaren magia sentituko duzu, podcastak ekoiztuz eta zabalduz edota Fakultateko estudiotik zuzenean emitituz.



ARGAZKILARITZA

Teknika eta estilo desberdinak ezagutzeaz gain, erronketan oinarritutako metodologiari esker, gai baten inguruan duzun ikuspegia argazki bidez transmitituko duzu.



KAZETARITZA

Kazetaritzaren oinarriak ezagutuko dituzu, besteak beste, elkarrizketak egiteko konpetentziak eskuratuz. Gainera, euskal Wikipediarako testu informatiboak sortuko dituzu.

2. maila



STREAMING ETA TB SAIOAK

Ekitaldi bat zuzenean nola emititu ikasiko duzu. Zure saio propioa ere ekoitzi ahal izango duzu: platoa prestatuko duzu, edukiak landuko dituzu eta streaming bidez emitituko duzu.



KOMUNIKAZIOAREN JOERAK

Zertan aldatu da komunikazioa azken urteotan? Norantza goaz? Aldaketen gakoak aztertu eta ondorioen inguruan hausnartuko duzu.



ANIMAZIOA ETA GRAFISMOA

Animazio eta grafismo teknikak landuko dituzu eta beraiekin ikus-entzunezko lanak egingo dituzu.

3. maila DUALA



GIDOIAK

Istorio bat sortzeko kontuan hartu behar direnak ezagutuko dituzu, ikus-entzulearengana heltzeko gaitasuna garatuz. Ondoren, gidoi horiek ikus-entzunezko pieza bihurtuko dituzu.



3D

Blender programa ezagutuko duzu eta 3Dak sortzeko aukera izango duzu.



FILM LABURRA

Komedia, drama, suspensea... zuk aukeratu zein generotan murgildu nahi duzun! Ikus-entzunezko Komunikazioa graduan, fikziozko film labur bat ekoitziko duzu zure ikaskideekin batera.

4. maila DUALA



ZINEMA JAIALDI BATEN ANTOLAKETA

Huhezinema Euskal Film Laburren Lehiaketako talde antolatzailearen parte izateko aukera izango duzu, zinema jaialdi baten antolaketaren barrenak gertutik gertura ezagutuz.



ENPRESEN ERAKETA ETA EKINTZAILETASUNA

Ezagutu nola sortu daitekeen enpresa bat eta nola eman forma ideia bati.



EDUKI ETA FORMATU BERRIAK

Zein eduki ikusi nahiko zenuke? Nolako formatuak atsegin dituzu? Design Thinking metodologia erabilita, zure proiektu propioa sortuko duzu.



BIDEOGINTZA

Kamerak erabiltzen hasteko ordua da! Ekoitzi bideo bat ikus-entzunezko lengoaia lantzen duzun ahala.



KOMUNIKAZIOAREN HISTORIA

Komunikazioaren oraina ulertzeko, ezinbestekoa da iragana ezagutzea. Ikus-entzunezkoen historia aztertuz, komunikazioaren etorkizunari begira jarriko zara.



SARERAKO ENTRETENIMENDUZKO EDUKIAK

Ikuslearen arreta lortzeko helburuarekin entretenimendurako edukiak sortuko dituzu.



EKIMEN KOMUNITARIOA

Bertatik bertara ezagutuko duzu gobernu kanpoko erakundeen lana, eta lagunduko diezu eguneroko jardunean eta izan ditzaketen komunikazio beharrei erantzuten.



WEB DISEINUA

Zure proiektuaren web orria diseinatu eta garatuko duzu.



MARKETIN KANPAINA

Marketin kanpainak nola osatu eta garatzen diren ikasiko duzu: helburuak zehaztu, ekintza plana diseinatu, emaitzak ebaluatu...



PUBLIZITATE KANPAINA

Publizitate kanpaina baten sormenak duen garrantziaz konturatuko zara eta kanpaina bateko euskarri desberdinak sortuko dituzu.



PRAKTIKAK

Komunikazioko alor guztietako enpresetan egin ahal izango dituzu praktikak, hala, komunikatzailearen lanbidea eta lanbide horren benetako testuingurua ezagutuko duzu.



NAZIOARTEA

Atzerrian sei hilabeteko esperientzia bat bizitzeko aukera izango duzu.

Norbere garapena

Zure garapen pertsonalaren eta profesionalaren ardura hartuko duzu tutore baten bidelaguntzarekin.



DOKUMENTALA

Gai bat sakon lantzeko aukera izango duzu dokumental baten ekoizpenarekin. Dokumentazio lana egin, hari narratiboa bilatu, elkarriketatuekin hitzorduak lotu, grabazioak, postprodukzioa...



NAZIOARTEA

Atzerrian sei hilabeteko esperientzia bat bizitzeko aukera izango duzu.



GBL

Gradu Bukaerako Lanaren bidez, enpresa edo erakunde baten erronka erreal bati erantzungo diozu.

PRAKTIKAK ETA GRADU BUKAERAKO LANA (GBL)

Komunikazioko alor guztietako enpresetan egin ahal izango dituzu praktikak. Horretarako, erakunde askotako eskaerak jasotzen ditugu ikasturtero. Gainera, zuk ere proposatu ahal izango duzu praktikak zein erakundetan egin nahi dituzun. Praktikek aukera emango dizute bertatik bertara ezagutzeko komunikatzailearen lanbidea eta lanbide horren benetako testuingurua.

Gradu Bukaerako Lanek (GBL), bestalde, enpresa edo erakundeen erronka errealei erantzuten diete. Proiektu akademiko-praktiko sakon horren helburuak dira, beste batzuen artean, benetako komunikazio erronka bati irtenbide erreala ematea eta harremana sustatzea ikaslearen eta erakundearen artean. Beste askoren artean, honako erakundeekin egin ahal izango dituzu praktikak, DUALa edo Gradu Bukaerako Lana:



**GRADUKO
OKUPAZIO TASA:
%93**
(LANBIDE)

ZERTAN EGINGO DUT LAN GRADUA BUKATU ETA GERO?

Gradua ikasita, lanbide askotan jarduteko prestatuko zara, esaterako:

- Zuzendari, gidoigile eta ikus-entzunezko errealizadore lanetan.
- Produktore eta kudeatzaile komunikazio esparruan.
- Erredaktore, eduki kudeatzaile Interneten eta bestelako hedabideetan.
- Ikus-entzunezkoen produkzio eta postprodukzioan.
- Diseinu grafikoan.
- Argazkilaritzan.
- Komunikazio korporatiboan.
- Marketin digitalean.
- Publizitatean.
- Proiektu berritzaileen sorkuntzan.





UNIBERTSITATEA BIZI!

Unibertsitatean aukera zabala dago kirolaz, kulturaz, eta oro har, aisialdiaz gozatzeko. Kirol Zerbitzuak, esaterako, antolatzen ditu ikastaroak, irteerak eta unibertsitate txapelketak.

Fakultatea, gainera, oso inplikatur dago bere inguruarekin, eta ikasleek ekintza ugari antolatzen dituzte gizarte osoari zuzenduta: zinema jaialdia, lehiaketak, musika, dantza eta literatur emanaldiak, jardunaldi irekiak...

BEKABIDE PROGRAMA

Bekabide programarekin, Mondragon Unibertsitateak egokitzen ditu graduaren ordainketak ikaslearen eta bere familiaren ahalbide ekonomikoetara. Egitasmo honen helburua da arazo ekonomikoak ez daitezela izan oztopo unibertsitatean ikasteko.

Mondragon Unibertsitatean ikasteak ekarriko lituzkeen gastuak eta diru-sarrerak kontuan hartuta, kasuan kasuko azterketa egiten da; ondoren, erantzun pertsonalizatua ematen zaio:

- Interesik gabe.
- Lehenengo urtetik hasita.
- Konpromisorik gabe.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

bekabide.huhezi@mondragon.edu


943 71 41 57

ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO ARRETA ZERBITZUA

Ikasle ez-tradizionalek dituzten premiei ahalik eta erantzun egokiena eman ahal izateko, orientazio eta laguntza emateko zerbitzua da. Ezaugarri fisiko, sentsorial, adimenezko zein psikikoengatik aukera berdintasunean mantentzeko zailtasunak izan ditzaketen ikasleei akonpainamendua egingo zaie zerbitzu honen bidez.

ARRETA PSIKOLOGIKORAKO ZERBITZUA

Zerbitzuak izaera prebentiboa du, eta doakoa da. Ikasleen ongizatea bermatzeko helburuarekin, eta bidaidetza prozesu baten bidez, psikologo-psikoterapeuta kolegiatuek egingo diete arreta ikasleei.



INFORMAZIOA

Iraupena: 4 urte

Kreditu kopurua: 240 ECTS

Modalitatea: presentziala

Hizkuntza: euskara, gaztelania eta ingelesa

Prezioa: 6.540 euro, 1. maila. (60 ECTS)

Tokia: Aretxabaleta

Koordinatzailea: Idoia Astigarraga

iastigarraga@mondragon.edu

idadzkaritza.huhezi@mondragon.edu

600 097 109

www.mondragon.edu/iko



...ETA ZER DIOTE IKASLE OHIEK?



Odei Esnaola
ETB Albistegietako aurkezlea

"Talde lanaren aldarrikapen sutsua egiten dut, eta hori da nire ustez komunikazioaren arima; Mondragon Unibertsitatean erein zidaten horretaz jabetzeko hazia. Urteak daramatzat telebistan, eta argi-ilunez betetako ibilbidea izanagatik, edonori gomendatuko nioke nire lanbidea barru-barrutik ezagutzea".



Irene Arin
*Chroma Estudioko
Komunikazio-estrategia eta
edukien arduraduna*

"Gradu berean diziiplina bat baino gehiago ikasi izanak ate asko ireki dizkit: kazetaritza eta marketin digitaletik, argazkilaritza eta diseinutik badu nire eguneroko lanak".



Jone Amonarriz
*AZK Komunikazio agentziako
marka aholkularia*

"Komunikazio esparru zabalenean nor bere tokia bilatzeko ibilbidea eskaintzen du graduak: aukera leiho bat profesionalki ez ezik pertsonalki ere hazteko. Inkonformista, ekintzaile eta sortzaile, etengabeko eraldaketan dagoen sektore batean lan egiteko prestatu ninduten, eta eskerrak!".




Mikel Alvarez
Bira Produksioakeko bazkidea

"Ekoiztetxe baten egunerokotasunean, garrantzitsua da, aditu bat izan gabe ere, zeregin ezberdinak egiteko gaitasuna izatea. Ikus-entzunezko Komunikazio graduak, komunikazioaren munduak biltzen dituen zeregin horien guztien oinarritzko ikuspegia izaten lagundu dit".



Sara Alonso
Gaztea irratiko esataria

"Ikasgai ezberdinen bitartez, graduak eskaini dit ikustea zer dudan gustuko eta zer ez. Eta horrela, nire burua kokatzen joan naiz poliki-poliki. Hala ere, gustoko dituzun praktikak egitea eta bertan guztia ematea funtsezkoa iruditzen zait lan-mundura salto egiteko".



Miren Ormazabal
*Aranzadi ikastolako
Digitalizazio arduraduna*

"Lan-munduko erronkei aurre egiteko ezinbestekoa izan da proiektu errealetan oinarritutako ikasketa ereduaren formatzea; ikasitakoa praktikan jartzeak beldurra kentzen lagundu dit".



**Mondragon
Unibertsitatea**

**Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea**

INFORMAZIOA

idazkaritza.huhezi@mondragon.edu
600 097 109

Otalora, 31
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)

www.mondragon.edu/iko

ENTITATE LAGUNTZAILEAK

